

Literatura →

Hezkuntzaren inguruko kezka hezkuntza bera bezain antzinakoa bada ere, gaia ikuspuntu ugaritatik lantzen duten hainbat liburu argitaratu dira azkenaldian.

Hezkuntza hizpide

Aritz Galarra

Mundua mundu denetik existitzen da hezkuntza, edo heziketa bederen, izaki batzuegandik besteengana egiten den ezagutza, ohitura, balio transmisio hori. Bizitza bera bezalakoa omen, zalan-tzaz betea, nondik etorriko den igartzen gaitza, bikaina arrakastan, narrasa porrotean, baina mugimenduan dagoena beti, etengabeko itxuraldaketan. Eta mundua mundu denetik existitzen da, halaber, heziketaren inguruko ezinezona, gauzak behar den moduan transmititzearen gaineko duda sorta. Ez da kontu berria, bezaz, baina liburu bat baino gehiago argitaratu dira azkenaldian, hizkuntza ugaritan, gai hori hizpide dutenak, eztabaida beste behin berriro denaren seinale, edo sekula joan ez denarena.

Oscar saririk irabazi ez duen arren, asteak daramatza *Entre les murs* ekoizpen frantziarrak geure

hegoaldeko zinema aretoetan. Eta, sarri askotan gertatzen den bezala, aurretik liburu izan zen filma, irakaslearen papera antzetzten duen Francois Begaudeau idazle eta irakasle ohiak 2006an argitaratua. Pelikula ikusi duenak jakingo ditu liburuaren nondik norakoak: institutu bat, Pariseko 20. barrutia, hango egunerokoaren berri ematen diguten irakasleen zein ikasleen gorabeherak. Irakasle sinpatikoa da Francois, heziketa horizontalean sinesten duena, ikasleak pixka bat haratago eraman nahi dituen, probokatzailera erabat. Baina, alde batera, ikasle aldra gatazkatsu xamarra du, eta, bestera, bera baino indartsuagoa den sistema oso bat.

Eta, inolako errezeta pedagogiko edo moraletatik urrun, hezkuntza sistemaz galderak pausatzera eramaten gaitu Begaudeauren liburuak, bai eta, ikasgela mikrokosmos gisa ulertuta, gaur



Entre les murs filmak Urrezko Palma irabazi zuen Cannesen. BERRIA

egungo gizarteaz ere: arraza mes-tizajea, dibertsitate kulturala, en-liskar soziala eta antzeko gaiak lantzen dira bertan. Pelikularean aldean narratibitatea eta adieraz-garritasuna galtzen dituen arren, ariketa interesgarria da *Entre les murs* liburua.

McCourt, Pennac, Luri

Frank McCourt idazle erdi estatu-batu ardi irlandarrak ireki zuen hezkuntza eta ingurukoak hizpide dituzten liburuen azken uztza hau, 2005ean, *Teacher man* izeneko lanarekin. Irakasle ibilbide luzean (hogeita hamar urtean) bildutako oroitzapenak jaso zituen memoria liburu honetan, eta ezaugarri horrek berezi egiten duen arren, heziketa espe-rientziaren inguruko testu kitzi-kagarria jarraitzen du izaten. McCourten hitzetan, irakaslea azken putza omen da AEBetan, eta, ironiaz gainezka egiten duen idazkerarekin, lanbideari buruzko bizipen eta hausnarketa mor-doa irakur daitezke hemen.

Idazle berantiarra da McCourt, 66 urterekin argitaratu baitzuen, 1996an, *Angela's Ashes* eleberrri ezin ezagunagoa. Eta arrakasta ikusita, nolatan ez zuen aurretik ezer idatzi? Erantzun erraza: klaseak eman izan ditu bizitza osoan. Eta New Yorkeko institutuetan, ez unibertsitatean: «unibertsitate irakasleen bizitza kontaktzen duten eleberririk irakurri ditut. Hain lanpetuta daude irakasle horiek adulterio eta borroka akademikoetan, ezen neure buruari galdetzen baitiot ea nondik ateratzen duten klaseak emateko denbora».

Arrasto bertsuan sartuko genuke Daniel Pennac idazle fran-



Francois Begaudeau idazlea. BERRIA

tziairrak orain bi urte kaleratuta-ko *Chagrin d'Ecole* lana. Memoria liburuaren eta saiakeraren arteko bidegurutzean, anekdota eta oroitzapen pertsonalez gain, hezkuntzaz hausnar egiteko gonbita ere luzatzen dio irakurleari, ikus-puntu original batetik: ikasle trake-sarena. Talde horretako kide nabarmen, gurutze bide izan ziren Pennacentzat eskola urteak. Ia ehun urteko amak, oraindik orain, semeak idatzi dituen liburu, artikulua, eman dituen elkar-irizketa, egin dizkieten erreportaje guztien ondoren ere, ea inoiz probetxuzko zerbaite egingo duen galdetzen dio.

Anaiari eman zion asmoaren berri, haurtzaroko ibai ertzean paseoan ari zirela: «diburu idatziko dut eskolaz. Baina ez ibai honen antzera aldatzen den eskolari buruzkoa, bere horretan mantentzen den eta inork aipatzen ez duen kontu bati buruz baizik: ikasle traketsak, haren guraso eta irakasleek partekatzen duten minaz». Eta jarraian galdera: «zer oroitzapen duzu nire eskola ezintasanaz?». Liburuan zehar baina, eskolak salbatu zuela aitortzen du Pennacek, edo, zehatzago, irak-lesle gutxi batzuek lagundu ziotela trakekeria horretatik ateratzen, gaur dena izatera iristen.

Eite zertxobait diferentean, Gregorio Luri, Azagrako irakasle ohi eta filosofoaren *L'escuela contra el món* lana dugu (oraingoz, katalanez baino ezin da irakurri). Saiakera soila, hezkuntza paradigma aldaketa aldarrikatzen du, eta, sormena, askatasuna, berez-kotasuna, plazera, berdintasuna, multikulturalitatea, berrikuntza, laiktasuna eta horrelakoez hitz egin beharrean, ezagutzaz, autoritateaz, isiltasunaz, esfortzuaz, elitismo demokratikoaz, identitateaz, tradizioaz eta, benetako plu-ralismoa nahi bada, erlijioez hitz egin behar dela defendatzen.

Gaur egungo eskola moldeari autokritika eskatzen dio Lurik, eta nolabaiteko atzera martxa, fa-miliaren eta gizartearen artean egitea dagokion bitartekari pape-ra betetzea ekarriko duena. Horrek, Luriren ustez, gauza askoren kontra egin behar dela esan nahi du: azelerazioa, kontsumis-moa, xalotasun morala, iritzike-ria, peterpanismoa, gehiegizko babesa... Eztabaida, inoiz itzali bada, martxan da atzera.

↓ Bibliografia:

- **Francois Begaudeau:** *Entre les murs* (Editions Verticales, 2006); *La clase* (El Aleph, 2009).
- **Frank McCourt:** *Teacher man* (Barnes & Noble, 2005); *Teacher man, un jeune prof à New York* (Belfond, 2006); *El profesor* (Maeva, 2006).
- **Daniel Pennac:** *Chagrin d'Ecole* (Gallimard, 2007); *Mal de escuela* (Mondadori, 2008).
- **Gregorio Luri:** *L'escuela contra el món* (La Campana, 2008).

M1 Hauteskunde gaua

Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian

19:45
hasita

Ekibile Aterrasagasti eta Martin Garitatorrekin

- ▣ eguneko gertakari nagusiak
- ▣ analitza denbora erresalean
- ▣ analitza talde jabea
- ▣ alderdi politikoaren batoritza aztertzeko



infozazpi